

# Onddoek eragindako infekzioei aurre egiteko baginatik barrenako botikak

Onddoek eragindako baginako infekzio ez-konplikatuak (kandidiasia) krema, pilula edo obulu baginal eran etortzen diren antifungikoekin tratatzen dira normalean.

Botika horietako batzuek aplikagailua izaten dute eta beste batzuk behatzarekin sartzen dira. Irakurri eskuorriko jarraibideak.

Lotara joaterako orduan jartzen dira, pixka egin ondoren; buruz gora etzan behar da, hankak pixka bat tolestuta, eta baginaren barru-barruraino sartu, indar handirik egin gabe.

Batzuetan, beste krema bat eman behar izaten da baginaren inguruan, kanpo aldetik.

Sintomak ez badira desagertzen edo errepikatzen badira, zoaz zure osasun-langilearengana.

## Gomendioak

- Ez da sexu-transmisioko gaixotasun bat, baina, hala ere, tratamenduak irauten duen bitartean sexu-harremanik ez izatea gomendatzen da, bestela tratamenduak eraginkortasun gutxiago izan baitezake.
- Bestalde, tratamenduak latexezko produktuen preserbatiboak eta diafragma propietateak alda ditzake, eta haien eraginkortasuna gutxitu.
- Ez tratamendua hasi hilekoarekin zauden bitartean. Gainera, kontuan izan hilekoa hasi baino lehen bukatu behar duela tratamenduak.
- Tratamenduak irauten duen bitartean, ez erabili tanpoirik, bagina barruaren garbiketarik, spermizidarik edo baginarako bestelako produkturik.
- Haurdun bazaude, tratamendua egin dezakezu; kontsultatu zure emaginari.

## Ohitura osasungarriak

- Kotoizko azpiko arropa erabili, eta ez erabili jantzi esturik.
- Ahal dela, ez erabili pH-a aldatzen duen xaboi edo bestelako produkturik genitalen inguruan.



# Medicamentos vía vaginal para las infecciones por hongos

Las infecciones vaginales por hongos (candidiasis) no complicadas se tratan habitualmente con antifúngicos en cremas, comprimidos y óvulos vaginales.

Algunos de estos medicamentos disponen de aplicador y otros se introducen con el dedo. Lee las instrucciones de uso en el prospecto.

Se aplican justo antes de ir a dormir y tras haber orinado, tumbada de espaldas y con las piernas ligeramente flexionadas, introduciéndolos profundamente en la vagina, sin forzar.

En ocasiones, puede ser necesario añadir el uso de otra crema en las zonas externas alrededor de la vagina.

Si los síntomas no desaparecen o se vuelven a repetir, acude a tu profesional sanitario.

## Recomendaciones

- Aunque no es una infección de transmisión sexual, se aconseja no mantener relaciones mientras dure el tratamiento ya que puede disminuir la eficacia del mismo.
- El tratamiento puede alterar las propiedades de los productos de látex, preservativos y diafragma, disminuyendo su eficacia.
- No comiences el tratamiento durante la regla. Además, ten en cuenta que el tratamiento debe haber finalizado antes del inicio de la misma.
- No uses tampones, duchas intravaginales, espermicidas u otros productos vaginales mientras dure el tratamiento.
- Si estás embarazada, también puedes tratarte; consulta con tu matrona.

## Hábitos saludables

- Usa ropa interior de algodón y evita las prendas ajustadas.
- Evita usar en la zona genital jabones y otros productos que alteren el pH.